



Berritzegune  
Nagusia

# “ELEANIZTASUNERANTZ 14/15” HIZKUNTZA PROIEKTU ELEANITZA

1. mintegi saioa

1. Mintegi saioa

1. Mintegi saioa

## SAIOAREN HELBURUAK

- Hizkuntza proiektuaren definizioa konpartitzea
- Martxorako egin beharreko lanari 1. hurbilketa

## GARAPENA

1. Hizkuntza proiektuaren kontzeptua aztertuko dugu.

“Dokumentu bat da. Bertan, ikastetxeko hizkuntzen ikaskuntza-irakaskuntzari eta erabilerari dagozkien alderdiak biltzen dira, haien trataerari koherentzia emateko. Hizkuntzekiko lan-tresna integrala da ikastetxearen komunikazio-testuinguru osoari eragingo diona (ikas-irakaskuntzei, eskolako zein ikastetxea txertatuta dagoen gizartearekiko harremani).”

*(Berritzegune Nagusia)*

“Ikastetxe bakoitzak, hizkuntzen irakaskuntzarekin eta erabilerarekin lotutako alderdi guztiak ondo planifikatzeko, Ikastetxeko Hizkuntza Proiektua egin behar du. Ikaskuntza-prozesu osoan hizkuntzak irakastearekin eta erabiltzearekin lotutako irizpideak garatu behar ditu Proiektu horrek, bai eta Hezkuntza Proiektuan jaso ere, eta bestalde, Curriculum Proiektuan hizkuntzen trataera ere zehaztu behar du. Halaber, ikastetxeko dokumentu guztiek hartu beharko dituzte oinarri Proiektuan jasotako erabakiak.”

*(Heziberri 2020)*

### “Ikastetxearen hizkuntza-plangintza”

- Atal honetan, ikastetxeak hizkuntzen erabilera eta tratamendua landuko ditu; besteak beste, honako hauek zehaztuta:
- Euskararen normalizaziorako neurriak bultzatzeko irizpideak.
- Hizkuntzen tratamendua (H1, H2, H3, etab.) eta planteamendu integratu batetik eratorritako ondorio metodologikoak eta antolakuntzazkoak.
- Hizkuntzen erabilera kudeaketaren, komunikazioaren eta eskolaz kanpoko jardueren esparruetan, besteak beste.
- Ikastetxean irakasten diren hizkuntza guztien irakaskuntzan koherentzia metodologikorako lagungarri diren irizpideak eta arlo horretan irakasleek, familiek eta hezkuntza-komunitateko gainerako kideek egindako ekarpena.
- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzarako eta ikaskuntzarako hezkuntza-planteamendua.

*(Hezkuntza Proiektua egiteko gida)*

2. Eleaniztasunerantz deialdiko 7. artikulua biltzen dituen atalak banan-banan aztertu eta deialdiak eranskinetan ematen ez dituen tresnak proposatuko ditugu atal bakoitza garatzeko.

7. artikulua, 4. atala:

4.-Eskabideekin batera, ondoko agiriak aurkeztu behar dira:

- Ikastetxearen hizkuntza-proiektu batik bat hirueleduna (edo eleanitza): proiektuak honako atal hauek izan beharko ditu, bi urterako proiektzioa kontuan hartuta:

- o **Diagnosia:** esperientzia hirueledun edo eleaniztunetan duen ibilbidea, esperientzia horietan parte hartu duten ikasle-taldeak, ikasle horiek diagnosi-ebaluazioetan euskara, gaztelania eta ingelesean izandako emaitzak, eta atzerriko hizkuntzetan Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak dituzten irakasleak.
- o **Helburu estrategikoak:** bi urterako helburuak eta helburu orokorrak, urtez urte banatuta, euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza zer mailatan ematen diren, taldeak, ikasgaiak eta ordu-kopurua adierazita, bai eta zenbat irakasle parte hartzen duten ere. Helburu horien artean adierazi behar da, gutxienez, beste arlo edo ikasgai bat (edo ordu-kopuru baliokidea) atzerriko hizkuntzan emango dela, atzerriko hizkuntzako arloaz gain, Ikastetxearen hizkuntza-proiektu batik bat hirueleduna (edo eleanitza) ezartzen dituen baldintzetan.
- o **Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza-jarduerak.**
- o **Plangintza eta gauzatzeko egutegia.** Garatzeko eta ezartzeko faseak eta denbora-antolaketa.
- o **Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara edo Bigarren Hezkuntzatik Batxilergora hizkuntza-proiektu batik bat hirueledunari (eta eleanitzari) jarraitasuna emateko estrategiak.**
- o **Proiektua ebaluatzeko eta emaitzak neurtzeko irizpideak.**
- o **Eragin-adierazleak:** zenbat ikasle-taldetan ezartzen den, parte hartzen duten ikastetxeko irakasleen kopurua eta ehunekoa, eta B1, B2 eta C1 tituluak lortzen dituzten irakasleen kopurua eta ehunekoa.

**A. Diagnosia:** esperientzia hirueledun edo eleaniztunetan duen ibilbidea, esperientzia horietan parte hartu duten ikasle-taldeak, ikasle horiek diagnosi-ebaluazioetan euskara, gaztelania eta ingelesean izandako emaitzak, eta atzerriko hizkuntzetan Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak dituzten irakasleak.

Deialdiaren eranskinetan honako tresna hau ematen da: I. ERANSKINA

**HIZKUNTZA-PROIEKTU BATIK BAT HIRUELEDUN (ETA ELEANITZA) APLIKATZEAREN LABURPENA**

Etapak	Maila	Talde kopurua	Taldea	Lerroa	Ezagutza-eremua	Hizkuntza	Ikasle-kopurua	Proiektuan partaide den irakasle-kopuru osoa	B2 titulazioa, parekoa edo handiagoa duten irakasleen kopurua

Baina ez da nahikoa. Diagnostikoa osatzeko eduki hauek sartu behar dira:

- *Esperientzia hirueledun edo eleaniztunetan ikastetxeak duen ibilbidea urterik urte zehaztua: Esperientzia eleanitza Batxilergoan, DBHn, HMHI, HMHII, ingeles goiztiarra. Idatzi behar da paragrafo bat azaltzen zein dira egindako bideak..*

Tresna hau proposatzen da

Esperientzia hirueledunean edo eleaniztunetan ikastetxeak duen ibilbidea urterik urte zehaztua.

Taula honen helburua da datuak ahalik eta modurik zehatzenean jasotzea.

Jarduera	Denbora-Epea	Ikasmaita(k) eta taldeak	Irakasleen kopurua	Arloa/ikasgaia	Beste batzuk
Ingeles goiztiarra					
INEBI					
BHINEBI					
DBH eleanitza					
BATX Eleanitza					
HMH					
Europar programak					
...					

- *Ikasleen emaitzak euskara, gaztelania eta ingelesean*

Ikasleen emaitzak honako hauetan aurki ditzakezue: diagnosi-ebaluazioetan, Ikasturte bukaerako aktetan...

- *Hizkuntzarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak dituzten irakasleak. Izena, arloa, maila...*

Tresna hau proposatzen da:

Hizkuntzarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailen baliokideak diren tituluak dituzten irakasleak.

- Taula honen helburua da datuak ahalik eta modurik zehatzenean jasotzea.
- Lehenengo zutabeetako datuak ikastetxeko irakasleen lanpostuen zerrendan (RPTan) islatzen dira. RPTan falta diren datuak gehitu.
- Irakasleek atzerriko hizkuntzan duten gaitasun maila interesatzen zaigu, soilik proiektu eleanitz batean parte hartzeko prest badaude, arlo bat emateko, testuak atzerriko hizkuntzan lantzeko (bideoa, testu anitzak...)...

Irakaslea	Arloa/Ikasgaia	Egoera	Euskera	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa	Alemana	Beste bat

**B. Helburu estrategikoak:**

- *Ikastetxearen helburu orokorrak.*

Errebisatu Hezkuntza Proiektua edota zehaztu hizkuntzei lotutako helburu orokorrak.

- *Bi urterako helburuak: Urtez urte banatuta, euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza zer mailatan ematen diren, taldeak, ikasgaiak eta ordu-kopurua adierazita, bai eta zenbat irakaslek parte hartzen duten ere.*

Atal hau garatzeko, EAEn hizkuntza ereduen dekretuak dioena eta orain arte esperientzia eleanitzean eta HMHn garatutakoa kontuan izan behar duzue.

○ ELEBITASUNERANTZ
○ A EREDUA/ B EREDUA/ D EREDUA
○ ELEANIZTASUNERANTZ: ESPERIENTZIA ELEANITZEN EREDUAK
○ HEZKUNTZA ELEANITZA. (2003-2004an hasita)
○ HEZKUNTZA MARKO HIRUELEDUNA (2010-2011n hasita)
○ HEZIBERRI 2020, euskara ardatz

Atal honen inguruan ikastetxeak gogoeta egin behar du. Deialdiaren eranskinetan agertzen diren tresna hauek proposatzen dira:

CURSO 2104-2015											
Etap	Nivel	Nº Grupos	Grupo	Línea	Áreas Inglés Horas	Nº Profes. implicados (inglés)	Áreas Castellano Horas	Áreas Euskara Horas	Nº Profes. implicados (euskera)	Nº Profes. implicados (castellano)	Nº Profes. implicados (otras lenguas )
Beste helburu estrategiko batzuk ( Hobekuntza Plana)											

CURSO 2105-2016											
Etap	Nivel	Nº Grupos	Grupo	Línea	Áreas Inglés Horas	Nº Profes. implicados (inglés)	Áreas Castellano Horas	Áreas Euskara Horas	Nº Profes. implicados (euskera)	Nº Profes. implicados (castellano)	Nº Profes. implicados (otras lenguas )
Beste helburu estrategiko batzuk ( Hobekuntza Plana)											

Jarduera hau proposatzen da:

“Oinarrizko hamar ideia bigarren hizkuntzaren jabetza indartzeko” dekalogoaz aztertzea hiruko taldeetan elkartuta.

Hiruron artean aukeratu: hiru alderdi esanguratsu:

- Ados zaudeten alderdirik esanguratsuena.
- Horrenbesteko garrantzirik ez duena.
- Zuen ikastetxean egin egiten dena.

### 3.1.3. Oinarrizko hamar ideia 2Hz jabetzea indartzeko

1. 2H batez jabetzea kalitatezko komunikazio-trukeetan parte hartuz lor daiteke —non elkar ulertzea bermatuta baitago—, kantitatez aski badira.
2. Elkarrizketa jatorraren garrantzia ez bairik gabekoa da 2Hz jabetzean. Gelako programazioek garrantzi horren isla behar lukete izan.
3. Hizkuntza garatuko bada, ulertzea da oinarria. Garapenak, gainera, hizketa eta idazketa sistematikoak eskatzen ditu.
4. Eskolaren testuinguruan, irakaslearen hizkuntza eta beste ikasleekiko trukeak dirateke *input*-iturri garrantzitsuena, eta hizkuntza-egagutzaren esperimentazio-testuinguru naturala.
5. Komunikazio ona bermatzeko, arreta etengabea jarri behar zaio ikasleak esan nahi duenari, ondoren esango denaren oinarritzat hartuz.
6. Ikasleek biltzen dituzten gaiak hartu behar dira, eta interesa sortzen dietenak proposatu.
7. Ulermena eta mintzamina garatzeko, sasi-solasak saihestea komeni da, hots, edukiaren interesean ez baina forman zentratuak.
8. Bigarren hizkuntzaren irakasleek elkarrizketetako aldaketak menderatu behar dituzte: ulermena kontrolatzeko erak, argibideak eskatzea, errepikapenak, parafraziak, hedapenak, zatikatzeak eta jatorrizko ez diren hitzuneekin erabili ohi diren beste erredundantzia mota guztiak, 2H ulertzen eta hartan jarduten laguntzen baitiete.
9. Irakaslearen hizkuntza-zuzentasunak ikasleen hizketa baldintzatzen du.
10. Ikasleak galdetzen ikastea ezinbestekoa da *input* gehiago jaso eta jasotzen duena hobeto uler dezan. Galderak egiten trebatu behar du.

“Bigarren hizkuntzaren didaktika Haur eta Lehen Hezkuntzan”  
liburutik hartua (75.or.)      Uri Ruiz Bikandi (apailatzailea).

C. Irakasleentzat aurreikusitako prestakuntza jarduerak...Lotura behar dute helburu orokorrekin eta helburu estrategikoekin.

- a. Atzerriko hizkuntzarekin lotuta
- b. Hizkuntza eta arloak
- c. Hizkuntzen didaktikari lotuta

Prestakuntza- jarduerak deskribatzeko tresna hau proposatzen du deialdiak:

III. ERANSKINA

PRESTAKUNTZA-JARDUEREN DESKRIPZIO-FITXA

- Jardueraren titulua.....Ordena-zk.....
- Egiteko aurreikusitako egunak  
Hasiera.....Amaiera.....
- 1.- Prestakuntza-jardueraren justifikazioa.
- 2.- Prestakuntza-jardueraren helburuak.
- 3.- Indarrean den curriculumarekin duen lotura (etapen, kurtsoan eta arloan...)
- 4.- Edukien definizioa.
- 5.- Jardueraren egitura: non egiten den, egutegia, orduak guztira, zati bereziak eta haien denbora-antolaketa.
- 6.- Prestakuntzaren hartzaile diren pertsonen tipologia: ikasturte, etapa, arlo... bakoitzean gehienez parte har dezakeen pertsona-kopurua.
- 7.- Jardueraren ebaluazioa, jarritako helburuen arabera: ebaluazio-irizpideak eta - adierazleak.
- 8.-Zein erakunde aurreikusi den jarduera emateko eta zein irakaslek emango duten.



D. Plangintza eta gauzatzeko egutegia. Garatzeko eta ezartzeko faseak eta denbora-antolaketa.

Tresna hau proposatzen da:

<p><b>HIZKUNTZA PROIEKTU eleanitza.</b> Plangintza eta gauzatzeko egutegia. Garatzeko eta ezartzeko faseak eta denbora-antolaketa.</p>			
<p><b>Helburua:</b> HIZKUNTZA PROIEKTU ELEANITZEAN JASOTAKO ERABAKIAK GAUZATZEA</p>			
<b>FASEAK</b>	<b>Jardueraren deskribapena</b>	<b>Denbora-epeak</b>	<b><u>Arduradunak</u></b>
2014/ 2015			
2015/2016			

E. Lehen Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara edo Bigarren Hezkuntzatik Batxilergora hizkuntza-proiektu batik bat hirueledunari (eta eleanitzari) jarraitasuna emateko estrategiak.

F. Proiektua ebaluatzeko eta emaitzak neurtzeko irizpideak.

Tresna hau proposatzen da:

Adierazleak	Betetze maila			Alderdi azpimarragarriak	Hobetu beharrekoa
Plan estrategikoan zehaztutako adierazleak:...					
Aurreikusitako taldeetan ezarri da					
Aurreikusitako irakasle kopuruak hartu du parte					
Aurreikusitako atzerriko hizkuntzako tituluak lortu dituzte irakasleek					
Aurreikusitako kopuruan lortu dituzte irakasleek beharrezko tituluak					
...					